

**Ana Mari, Ama Mari**

Iñigo Aranbarri

*Egunero*, 2003-02-27: 15.

Ana Mari du izena. Bere senarra Martin Ugalde da eta bere seme-alabak Unai, Itsaso eta Ainara. Caracasen sortu zuen familia, duela berrogeitaka urte. Orain bost bilobaren amona da eta Hondarribian bizi da, hainbat lekutan ihesi ibili ostean. Azken urteak bederen, aski baketsuak izan ditu aurreko garaiekin alderatuta. Adinean aurrera doan arren, emakume lerden eta dotorea da oso. Haren ile beti apainduak, elurrezko geruza guztiz garbia dirudi. Bere etxeko bakoitik, Iparraldeko ispazterra eta Hendaiaiko Tonbarriak ageri dira eder, egunero.

Senarraren osasunak du kezkatzen. Harexek ematen dizkio gaur lanik handienak. Senarra gordetzen, senarra babesten, hartzen ditu lan ikaragarriak. Ez du nahi gu denok harenganaino hurbil gaitezen. Badauka Martinekiko gure miraren berri, baina ez du etsitzen. Ez digu noiznahi eta edozein modutan harengana hurbiltzen uzten. Gaixorik dago eta ez lioke onik egingo. Bera da senarraren osasuna gordetzen duen gazteluaren zelataria.

Haren urtebetetze egunean, esaterako, eten egiten du telefonoko haria eta erantzungailu bitartez emango dizkizu eskerrak Martinen izenean. Martin ondo dagoela, poztu egiten dela zure deiarekin, baina barkatzeko, ezin duela jarri. Ulertuko duzula. Eta eskerrik asko, ematen dizu bere ahots dantzariarekin. Beti ari da eskerrak ematen, berak jaso behar lituzkenean eskerrik beroenak.

Bankuko kontuak blokatu dizkietela eta deitu diogunean, ezer behar badu lasai eskatzeko eskaini diogu. Ogi bila ere joango garela berak etxetik irten nahi ez badu. Nahi duena, behar duena, eska dezala lasai eta egingo dugula, hemendik edo handik.

Itxura batean, ordea, milagarrenak izan gara eskaintza horrekin berarengana jo dugunak. Gu baino azkarrago ibili dira beste asko eta asko, zorionez. Lagunak eta ezagunak. Ahaideak eta aberkideak. Martinek gizatasuna eta lanaren miresleak. Eta nabari da Ana Mariren ahotsean. Ana Mariren umore ederrean. Alai dago, jostari dago, baikor dago. Martin ere bai, antza. Hala esan digu, bederen. Eta poz pozik utzi gaitu. "Deitu duzuen bakoitzari milana euro atera banizue, oraintxe bai aberats!", erantzun digu. Eta eskerrik asko eta mila esker. Ez dagoela arazorik eta lasai egoteko. Ezer behar badu deituko duela.

Bizitzaren gordinaz eta militantzia irmoaren ondorioez, inork gutxi daki berak beste. Hiru ume txiki altzoan hartu eta hemendik hara ibiltzen katedratiko handia da Ana Mari. Kontinente batetik bestera, mugaren alde batetik bestera. Iparraldetik Hegoaldera eta alderantziz, familiaren euskarri, etorkizunaren berme. Bera izan da eta da oraindik ere hori. Ana Mari.

Horregatik, agian, esan digu, atxilotuen umeek kezkatzen dutela bera. Bai "umeak" hitza erabili du "seme-alabak" esan ordez. Amaren hitz hagusia erabili du: ume. Ederki

daki berak horrek berri. "Atxilotuen umeek kezkatzen naute, horiexek ematen didate pena. Horiek zaindu behar ditugu lehenbizi". Beste guztiena pasatuko dela badaki, umeena, ordea... Beldurtu egiten du haiengan gera daiteken markak, aita atxilotuta edukitzeak ezar dezakeen tristura eta zantzuak. Badaki EGUNKARIAK aurrera egin behar badu, halaxe egingo duela. Umeak, ordea...

Lehengo eguneko artikulu hunkigarri batean, "amaren sua" aipatzen zuen Joxerra Gartziak. Aitaren etxea bano, amaren sua dutela berak ta Jon Sarasuak nahiago. Neu ere horrexetan nago. Hobe genukeela amaren sura hurbiltzea eta hura beti piztuta eustea, elkarren kontrako jauregiak jaso ezinik ibiltzea baino.

Inork ez duelako sekula aipatzen ekarri nahi izan dut hona Ana Mari. Funtsezkoa ezkutuan baitzaigu sarritan pasatzen. Gora zeu, Ana Mari! Zenbat zu bezalako gure herri zahar honetan! Eurei denei omenaldi!